

# Ezpalak

JON TORNER

**Barricada** Iruñeko musika taldeak 25. urteurrena ospatzeko bira egingo du. Lehen emanaldia Atarrabian martxoaren 30ean eskainiko du. Hiru ordu iraungo duen kontzertuan plazaratu dituzten 18 diskoetako abestiak joko dituzte. Bira amaitu ostean disko berria grabatzeko asmoa dute Barricada musikariek.

**Trasposos** konpainia gasteiztarraren *Demasiado humano (los últimos días de Nietzsche)* obrak Euskadi ordezkatu du Max Sarietan, ikuskizun errebelazio onenaren atalean. Sariak apirilaren 16an banatuko dituzte Bilboko Euskalduna jauregian.

**Jose Antonio Sistiaga** margolari eta zinemagile donostiarraren lanekin *Suite érotique* izeneko erakusketa zabaldu dute Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Erotismoa ardatz hartuta, Sistiagak 1980tik 1993 artean marraztutako 24 artelan jarri dituzte ikusgai. Erakusketa martxoaren 24a arte egongo da zabalik.

**My Jok** plataforma artistikoak euskal gazteen nortasunaz gogoeta egitea xede duen *BURPI!* dokumentala egin du Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin. Sorkuntza hori, ekainaren 23an Baionan zabalduko den *Batek-Mila - Euskal munduak* multimedia erakusketa ibiltarian eskainiko dute estreinakoz.

## Juan Maidagan, Dolores Zinny eta Iñaki Imazen obrak Rekalde aretoan daude ikusgai



Bilboko Rekalde aretoan bi erakusketa izango dira ikusgai apirilaren 8a arte. Batetik, Iñaki Imaz EHUko Arte Ederretako Fakultateko irakasleak hainbat instalazio bildu ditu *Lo Mio* izenburupean. Aurki daitezkeen objektuek, artistari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, nolabaiteko deserosotasun bati aurre egitera bultzatzen gaituzte. Alboko irudia, *Txerria-basurdea* sailekoa da. Bestalde, Alemanian jaio eta Berlinen bizi diren Dolores Zinny eta Juan Maidagan artistek *Kosta, eraso, berbera* erakusketa paratu dute Rekalde aretoan. Europa eta Amerikako hainbat herrialdetan aski ezagunak diren bi artista horien instalazioetan margolanek, eskulturek, argazkiek, marrazkiek eta arkitekturak bat egiten dute. Erakusketaren harira, Zinny eta Maidaganek diseinatu eta Mónica Amor, Hyunjin Kim eta Leire Vergararen testuez hornitutako katalogoa aurkeztu dute.

**Asier Hormazak *El País* egunkarian:** «Euskal antzerkiari zera falta zaio, administrazioak euskal interpretazio mundua eta kultura oro har industriatzen jotzea. Hemen oso profesional onak daude ikuspuntu artistiko nahiz teknikitik, baina denak kanpoan dabiltza lanean. Garrantzitsua izango litzaiteke Eusko Jaurlaritza honetaz konturatzea eta euskal kulturari dihardugunon alde egitea. Orain, bakarrik egiten dute apustu gure alde kanpora atera eta kanpoan arrakasta lortzen dugunean».

edo zineman eginikoak oztopatzen ditunean arazo bilakatzen da. Oso zaila da aktore batentzat, beste pertsonaia bat antzezterakoan, telesaileko horren ezaugarri guztiak desagerraraztea. Istorio bat kontatu ahal izateko, askoz hobe da alde aurretik inork ezagutzen ez bazaitu. Zoragarria litzateke film bakoitzean nire ezaugarri guztiak eraldatu ahal izatea, izena bera ere bai».

**Alex Angulok *Berria*:** «Telebistaren arazoa da, jende gehiegik ikusten zaituela. Pertsonaia horrek gaitzetzeko lanetakoak, antzerkian

**Ane Muñozek *Garai*:** «Niregatik balitz, laburrak egiten jarraituko nuke genero bezala asko gustatzen zaidalako. Baina ez noa inora horrekin, eta dagoeneko lotsa ematen dit hainbeste fabore eskatzeak».



## Ondarre baserria



20214 Segura (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 801684

e-posta: [ondarre@nispavista.com](mailto:ondarre@nispavista.com)  
[www.acvmultimedia.com/ondarre](http://www.acvmultimedia.com/ondarre)

## Artea eta industriaren mundua batu ditu *Disonancias* proiektuak

**ARTEA** industriaren munduarekin lotzeko xedez jaio zen *Disonancias (Disonantziak)* proiektua. Antolatzaileek, aurkeztu ziren 34 herrialdeetako 150 laguneko artetik 15 aukeratu zituzten. Artista horiek Euskal Herriko hamar enpresatan garatu dituzte euren proiektuak, berrikuntza ardatz gisa hartuta. Emaitzak prototipo, esperientzia interaktibo eta ikus-entzunezko dokumentalaren bidez aurkeztuko dituzte martxoaren 2an, Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunean (Tabakalera zentroan). *Disonancias* ekimenaren inguruko ekitaldi gehiago ere izango da egun horretan eta hurrengoan Donostian. Informazio gehiago: [www.disonancias.com](http://www.disonancias.com).



## Victoria Eugenia antzokiak indartsu hasiko du ibilbide berria

**DONOSTIAKO** Victoria Eugenia antzokia hurrengo astean inauguratuko dute, sei urtez luzatu diren eraberritze lanen ostean. Antzokiak bi areto berri izango ditu: dantza aretoa eta formatu txikiko emanaldietarako egokitutako klub aretoa. Bestalde, 890 eserleku izango ditu, lehen baino 200 gutxiago, baina horrek espazioa emanaldi desberdinetarako egokitzea ahalbidetuko du. Victoria Eugeniak denboraldi berrian jasoko dituen bederatzi emanaldietarako sarrerak agortu egin dira jada. Horien artean

## Iruñeko Hiria Poesia

**Lehiaketa.** Nafar Ateneoak Nazioarteko I. Iruñeko Hiria Poesia Lehiaketa sortu du. Mundu osoko autoreei zuzenduta dago eta olerki bakarraren orde, poema sorta onena sari-tuko dute, "parte hartzaileen lana epaitzean zuzenagoak izateko". Irabazleak 5.000 euro jasoko ditu eta Celya argitaletxeak lan sarituaren 1.000 ale kaleratuko ditu. Lehiaketak badu *bainarik*, ordea. Oraingoz, euskarazko lanek ez dute lekurik. Hurrengo urteetan jarraikortasuna badu, litekeena da euskarazko poemak ere aurkeztu ahal izatea. Olerki sortak maiztaren 11 baino lehen bidali behar dira eta epaimahaiak urrian emango du bere erabakiaren berri. Lehiaketaren oinarriak [www.ateneonavarro.es](http://www.ateneonavarro.es) web gunean topatuko dituzue.

## kulturagenda

## Martxoaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

### Dokumentuak

Etorkizunaren memoria  
martxoak 17 arte

The Atlas group/Walid Raad, Bleday Rosa, Luc Delahaye, Juan Manuel Echavarría, Jacques Fournel, Sebastián Friedman, Brian Mckee, Ann-Sofi Sidén, Alec Soth

### Suite Erotique

J.A. Sistiaga  
martxoak 24 arte

Erakusketen bisitaldi  
gidatuak taldeentzat

Tfno: 667 346 025


Jardunaldiak

### Iparraldea bertan

Martxoak 8, 15, 22 eta 29

Areto Nagusia. 19:30

Beñat Achiary,  
Maialen Errotabehere,  
Daniel Landart, Anje Duhalde...



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | [www.arteleku.net](http://www.arteleku.net)

### Animac Artelekun

Labumetraien emanaldia

Martxoak 6-10

Koordinazioa: Isabel Herguera

Martxoak 6

19:00. **Brou Animac I.** Proiektzioak  
20:00. **Cellulle d'Intervention Metamkine.** Kontzertua

Martxoak 7

19:00. **Mikhail jaunaren izarrak.** Proiektzioak

Martxoak 8

19:00. **Transorient Express.** Proiektzioak eta kontzertua

Martxoak 9

19:00. **Brou Animac II.** Proiektzioak

Martxoak 10. **Kutxa Aretoa (Arrasate, 12)**

18:00. **Haurrentzako emanaldia.** Proiektzioak

